

laboralak

hezkuntzako

2003rako Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileentzako Hitzarmen Kolektiboa

Pasa den abenduan kolektibo berri honen 1go hitzarmena negoziazio prozesua bukatutzat eman zen aurre akordioaren sinadurarekin.

STEE-EILASeko ordezkariok ez genuen aurre akordio hori sinatu gure afiliatuen iritziak, inplikaturik dauden pertsonen iritziak entzun barik. Asanbladak eta bidalketa bereziak egin ostean, jaso ditugun aburuekin balorazio bat egin eta erabaki bat hartu dugu.

Prozesuaren Balorazioa

Administrazioaren jarrera irekia izan den arren, **sindikatuok ez dugu denborarik izan** hitzarmenaren zirriborroak aztertzeko bileretan bertan pasatzen baitzizkiguten. Hori horrela izanda, **prozesua oso azkarra** izan zen, dena hiru bileretan erabakiz, eta gainera, **beste sindikatuek premia handia** azaldu zuten negoziazioak ixteko behin betiko testua eskuetan izan barik.

STEE-EILASi hau dena oso bitxia iruditu zaigu eta gauza garrantzitsu negoziatzeko aukera galdu delakoan gaude.

Edukinaren Balorazioa

Aipatzeko lehenengo gauza da: hitzarmen hau osatzen duten **bi kolektiboen abiapuntua oso desberdina** dela. Hau da, lan-legepeko irakasleak ia-ia puntu guztietan irakasle funtzionarioekin parekatuta daude. Hezitzaileek, berriz, maila berdina iristeko hobekuntza asko behar dituzte.

Bigarren gauza da beste sindikatuek **urte bateko hitzarmena** izatea eskatu zutela eta honek puntu batzuen negoziatioetan eragina izan zuen (adibidez, gizarte fondoan), batez ere urte hori pasatuta baitzegoen.

Agertzen diren aldaketen artean aipagarrienak dira:

- ✓ Urte sabatikoa, edo hobeto esanda, **partzialki ordaindutako baime-na**. Hau, enplegua banatzeko neurrien artean aurkitzen da, eta langile irakasle zein hezitzaileei, urte libre bat izateko aukera ematen die, urte honetan, zein aurreko beste lau urteetan soldataren %84 kobratuz.
- ✓ **Langileen prestakuntza eta hobekuntzari** buruzko puntuan, oso argi zehazten da irakasle funtzionarioek dituzten aukera guztiak hitzarmen honen langileek ere izango dituztela.
- ✓ **Genero-berdintasunaren aldeko neurriak** ezartzen dira.
- ✓ **Haurdunaldiko, erditzeko eta bularra emateko lizentzian** gehitzen da langileak lansarien %100 jaso dezala haurdunaldiko arriskuagatiko lizentziarekin dagoen bitartean, eta bularra emateko denbora metaketa egiterakoan, sei ordu izango dituela lanegun bakoitzeko.
- ✓ **Hezitzaileentzako txanda-kontratua** ezartzen da eta **klaustroetan partehartzeko** aukera.
- ✓ Irakasleentzat, kategoria berdina daukaten langileekiko **soldata parekatzeko neurriak** finkatzen dira.

Puntu hauetaz aparte, STEE-EILASek eskatzen zituen hainbat gauza garrantzitsuak **negoziatu gabe** geratu dira. Adibidez: **ordezkoentzako oporraldiaren ordainketa, gizarte fondoa, urteko ordu kopuruaren murrizketa, txanda-kontratua irakasleentzat, 55 urtetik ikasleari arreta zuzenaren murrizteko aukera eta borondatezko erretiroa.**

Laburbilduz, **STEE-EILASek hitzarmen hau positibotzat jotzen du, akordioa sinatuko du** eta prozesu honetan eztabaidatu barik geratu diren puntuak aldarrikatzen jarraitzeko konpromisoa ere hartzen du★

laboralak

hezkuntzako

heziketa zikloak librez, noizko?

2003ko urriaren 5an egindako batzorde parekidean Administrazioak adierazi zigun, joan den urteko hanka sartzeari sailheste aldera (zerrendak ireki ziren eta kanpoko jendeari ez zitzaion eskatu lanean ari denari eskatzen zaion titulazioa) Agindu bat aterako zuela abenduan, urtarrilean matrikulatu ahal izateko librez.

Horretaz gain, aipatu ziren zeintzuk izango liratekeen matrikulatzeko baldintzak:

- ✓ 20 urte baino gehiago izatea.
- ✓ Bi urteko lan-esperientzia izatea lan-arlo berean edo lan-arlo bereko ikasketen ziurtagiria izatea, hau da, L.H.1 gizarte-osasun arloan edo haur hezkuntzan.

Hilabeteak joan hilabeteak etorri, otsailaren erdialdean gaude eta abenduan argitaratu behar zuen Agindua ez da atera, beraz, ordezkoen artean izua zabaltzen ari da, 2004ko irailerako Gizarte Integrazio edo Haur Hezkuntzako modulu erdiak gaindituak eduki behar baitituzte.

Lakuara deitzen dugun bakoitzean aipatzen zaigun gauza bakarra da, aipatutako Agindua barruko zirkuituan dagoela. Noiz egingo da matrikula? Nola konponduko dute konbalidazioen kontua, baldin eta bi hilabete behar badira konbalidazioak emateko?★

Irtenbideak lehenbailehen; ;

irale

Bai irakasleentzat bai behin betiko hezkuntzako langileentzat, datorren ikasturterako IRALEko ikastaroetan apuntatzeko epea otsailaren 23tik martxoaren 5era zabalduko da.

Gogoratuko dizuegu, lan-legepeko irakasleek funtzionarioek dituzten aukera berberak dituztela.

Aldaketa garrantzitsu bat dago Hezkuntzako langileentzat: lehenengo aldiz, R300 ikastaroa (euskeraren sendotzeko ikastaroa) egiteko aukera izango dute. Beraz, HE2 edo EGA dutenak ikastaro horretan apuntatu ahal izango dira★

Aprobetxa ezazue aukera!

lan osasuna

Pasa den urtarrilaren 16an, Segurtasun eta Osasunerako Lurralde-arteko eta Arlo-arteko Batzordea bildu zen Lakuan. Hor bestea gauza batzuen artean Hezkuntza Bereziko Hezitzaileen kolektiboari dagozkion bi puntu tratatu ziren:

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak "03-04 ikasturterako plana"-ren zirriborroa aurkeztu zuen. Hor, **Osteomuskular Programa Espezifiko** bat egiteko proposamena jasotzen da.

Programa hori hiru zatitan banatuta egongo da:

1. Lan ekintzek sortutako patologien azterketa.
2. Eraitzen arabera espezialistenganako desbideratzea.
3. Prebentziorako ikastaroak.

Adi egongo gara hitzartuta bete dezaten eta programa hau praktikara eraman dezaten.

STEE-EILASEk berriro mahai gainean ipini zuen kolektibo horren lanpostuaren definizio falta eta honek sortzen dituen arazoak langileen osasunean. Hori dela eta, hitzarmenak diotena betetzeko eskatu zen: koordinazio orduak errespetatzea, ikastetxeetako klaustro eta ordezkaritza organo gorenetan partehartzeko aukera izatea...

Administrazioak, beti bezala, ez zeukan erantzun bat, baina *guk jo eta ke jarraituko dugu beraien hitza betearazteko★*